

Joseba Iturriz

MEDEAK TALDEKO KIDEA

Hondarribiko eta Alardeko naziak

G

oizeko sei eta erdiak, ohetik altxa, kotxea hartu eta Hondarribira. Ezin nuen imajinatu XV. mendera egingo bidaia horrek gordeko zidana.

Egonda nengoen herri horretan, normaltasunez jantzitako beste egun batean. Arkupeetara iritsi behar nintzen, jendeari galdetza, eta hara non, *mobida* erdian agertu nintzen. Espalaira salto egin orduko izutzen hasi nintzen, ezin nuen kalea ikusi, eskuek eusten zituzten plastiko beltzek dena estaltzen zuten. Espaloia emakumez bete zegoen, denak garrasika, haserre aurpegiak edonon, eta ni han erdian eta aurrera egiten. Emakume haiek nigan erreparatu zuten eta nazka aurpegiak sumatzen nituen. Batek oihera egin zidan: “Zer egiten du honek hemen! Besterik ez genuen behar!”. Hori entzun eta adore txerto bat balitz, plastiko beltzen azpitik pasa nintzen, errepede erdian agertuz.

Errepidean ikusi nuenak ez ninduen baretu: ertzainez inguratutako desfilea. Erdian betiko txapel gorriekin aurrera egiten zuten gizon eta emakumeak, alboetan polizia-katea, eta segituan ia ertzainei pegatua, plastiko beltzak. Txaloka eta garrasika hasi nintzen “Aupa Alarde mistoa! Aupa neska!”. Nire garrasiak plastikoen atzetik zetozen koroek estaltzen zuten: “Betiko Alardea!”. Ertzain batek sorbal-



DANI BLANCO

daz jo eta plastikoen kontra bota ninduen, begietara begiratu nion, gizakia zela gogoratzen zuten zulo horietara, eta lasai galdetu nion: “Zer egiten ari zara?”. Begiek errektionatu eta nire bidea lasai egiten utzi zidan. Segituan aurkitu nuen babesa arkupeetan.

Txaloka jarraitzen nuen, baina ezin nuen gainetik kendu tripetatik igotzen zitzaidan urduritasuna, antsietate puntu bat ere

banuen. Perlaz eta diruz jantzitako emakume horien garrasiek zuri-beltzeko filmak ekarri zizkidaten burura, nazien pelikulak. Judutarrak getthoetan sartu behar zituzten eszena horietako bat. Espaloietan, ondo jantzitako herri alemana, judutarrei garrasika, haserre aurpegi horiek, eta polizia judutarren kontra eta ez nazien kontra. Oraingoan ere, dena aldrebesa, legea zintzo-zintzo betetzen dutenak poliziaz inguratuta, eta naziak herrian nahi dutena egiten. Geroago konturatu nintzen emakume haiei falta zitzaizkien gizezkoak lasai asko ibili zirela beraien desfilean, kale guztia hartzen, poliziarik gabe, herriaren jabe. Emek

Emek plastikoei eusten eta harrak espazio publikoa hartzen.

Dirudienez badago oraindik

Hondarribian XV. mendean

gelditzeko eta sexuen lan

segregazioak mantentzeko

gogo asko duen jendea

plastikoei eusten eta harrak espazio publikoa hartzen. Dirudienez badago oraindik Hondarribian XV. mendean gelditzeko eta sexuen lan segregazioak mantentzeko gogo asko duen jendea. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Zinemaldia igaro da beste urte batez. Oraingoan Elias Querejeta –emandako sari berezi bat medio– entzun dut hizketan.

Hernani bere sorterriari eskaini dio berari emandakoa. Hernani, aberria omen du.

Sinetsi ere sinetsi egin diot, urrutiko intxaurren antzera. Aberritik at eman du ia bizi osoa, Kaliforniara joandakoak legez, honek ere lanak behartuta. Futbolari fina, Donostiatik Madrilerara egin zuen *amerikeen* bila eta zinemagintza aurkitu zuen. Espainiako zinema ekoizleen artean, podiumeko puntan dago. Eta harro agertu du bere burua hernaniar, bertako abertzale. Eduardo Chill-

Donostiako

da du aberkide, hau ere artista, bertakoa, donostiartua. Futbolaria izana hau ere. Eta futbola ogibidea duen beste aberkide bat ere badute, nahiz eta hau artegintzan aritu ez den.

Espainolek bortxaz desagerrarazitako bertako *Egineko* kazetari izana, aberritik at dabil bizibidean Gipuzkoako hedabide azkarrenetako maisu. Tito esaten diote. Badituz nik lagunak Hernanin, minak aberria hizkuntza dutenak bertan eta kanpoan. Euskal Herrikoak. Ez dira hiru hauen aberkide, ez dira artistak edo kazetari famatuak, ez dira hedabideetan agertzen. Eta Hernanin ikusi ditzakezue zero zabor tonelada zerbitzu. Hauei zor da Hernani den bezalakoa izatea. ■

